

# ERRENTERIA EUSKALTASUNAREN EREDU



Andoni UGARTE

Ez da, zoritxarrez, gaurko kontua . Izan ere gaur egun askotxo falta zaio gure herriari euskaltasunaren eredu izateko. Mende honen hasieran gertatutako bi pasadizo aipatuko ditut . Bandoak euskaraz ere egiteko erabakia hartu zenekoa da bata eta Errenteria euskaltasunaren eredu bezala aipatzen denekoa, bestea.

Begira herriko berri emaleak, Enrike Elizetxeak, 1902ko Ibaizabalean, 22. n alean zer dioen :

“Garai hartan ez zegoen autonomia estatuturik, ez euskararen ofizialtasunik . Halaz ere euskarari bere lekua aitortzea erabaki zuen Aiuntamentuak . Azpimarratzekoa da berri emaleak herritarren erantzunari buruz dioena. “Erabaki au ontzat artuko du erri guziak, bada jende asko zan, arrazoiarekin, keizatzen zana beti erderaz bakarrik egiten ziralako bandoak” . Aipatutako aldizkari honetan bertan, 60.n alean, esaten zaigunez, oso euskaltzalea zen Errenteria eta ingurutako jendea eta bertsopaperak berehala saltzen ziren bertan. Euskarazko antzezlanak pozik ikusten zituzten Errenterian eta gogoz txalotzen. Orfeoia ere gogoz prestatzen zituen euskarazko kantak ikusten denez. Ibaizabal-ek berak 150 ale banatzen zituen astero. Bazen zerbait. Neronek baino hobeto adierazten dizkigu garai hartako euskal giroaren xehetasunak:

“Pozarren itzeguiteko garai eldu jaku bada nozbait, ikusirik erri bat Euskalerrian, nun direan chiki ta andi euskaldun zintzon zintzoak; nun gure izkuntza onek daukazan, ez sustarra bakarrik, baita adar, ori, ta lora ugari ta ederrak eta nun alort edo frutuak emoten asi dan. Erri dontsu ori da ERRENTERIA .

Uri onetan ezta entzuten bertako semeen erderarik; pozgarrizat dauke eurak, naiz jaunak izan, euskeraz mintzatzea. Ausse jakitea bakarrik da naikoa, ezagutzen asteko zer dan Errenteria.

Euskerazko paper au arguitaratzen asi guineanean bertako lagun batek esan euskun: “Emen, nere iritzian, arrera ona eguingo zaio euskaraz atera dezuten paper orreri, baldin guipuzkoarrez jarten badezute beraren erdia, zergatik dan oso euskarazalea emengo jende guzia; eta gainera ikusten degulako, itsuak eta beste zenbaitek ekartzen dituzten euskarazko berso-paperak, berealassen saltzen dirala”.

Alan guertatu da. IBAIZABAL-ek Errenterian aina irakurle daukan uririk eztago ez Bizbaian ez Guipuzkoan, Bilbo alde batera kendu ezkerre; eun da berrogeitamarretik eun da irurogueira lagunek artzen dabe Errenterian euskerazko albistaria, euskerazkoa dalako . Eta ezpeie esan beste urietakoak, batez bere gure Bizkaian Durango, Guernika ta besteren batzuk, ori izango da errenteritarrak erdera eztakietako, ez; eurak baizen ondo dakie erdere, obeto ezpadakie . Eztago besterik

Astearte arratzaldean Aiuntamentuak izandu zuen billaldi edo batzarrean, errejidore jauna Don Rikardo Urgoitik aguerrerazi zuen gure izkuntza ederrari dion maitetasuna, esanaz bere iritzian bando edo pregoi guziak otsandetu edo publikatu bear zirala, ez bakarrik erderaz, baizik baita ere euskeraz. Azaldu zituen bere iritzi onen alde arrazoi bidezkoak, eta aiuntamentuak ezaguturik zirala chit kontuan idukitzeakoak erabaki zuen emendik aurrera eguin zitezela pregoiak Urgoiti jaunak eskatu zuen bezela”.

zaletasun ori ulerteko, euskerea biotz biotzean daukeela baino. Lengo illean eguin dituez Errenterian jostirudiak edo comedia-k euskeraz ango biltoki edo teatro-an, eta jentea aurrez joan da, sartzeko dirua emon bear izanarren, eta euren atseguna ta poza erakutsi dabe chalo-ka ta bizi-bedika. Ango orfeoikoak aspaldi honetan dabiz atonduten euskerazko kantuak, datorren Garizuma-ko eliz-jaietan kantatzeko. Berba baten, andik datorkiguzan barri guztiak dakarre euskerazko selloa. Onetariko erriak ikusita, adimenak esaten deusku Euskerearen arbola edo zugatzak adar igarrak eukiarren, oraindik, badituela adar eze ta sendoak, biziz bete beteak, eta icharopenaren ateak zabaltzen dira biotzean”.

Pasarte luzea bada ere merezi izan duela uste dut hona ekarri eta ezagutaraztea. Nere aldetik ohar txiki bat erantsiko nioke. Garai hartan euskaltzaleak ziren ez noski, erdararik ez zekitelako “euskerea biotz biotzean daukeela baino”. Gaztelera ondo menderatzearekin batera, euskaltzale izaten asmatu egin zuten. ; Gaurko eta geroko gazteak asmatuko al du gizarte eleanitzean euskarari eusten eta erabiltzen !. Amaiera Ibaizabal-ek esandako hitzetan emango diot. ; Gora Errenteria !. ; Bizi bedi uri euskeratsua !